



ADIERAZPENA

Martxoaren 8a, Politika Feministak ardatz

Martxoaren 8an, Emakumeon Egunean, orain arte lortutakoa ospatetik haratago, honaino iristeko borroka egin duten Mugimendu Feminista eta norbanakoen lana aitortzeko, eta aurrera begirako erronkak mahai gaineratzeko eguna da. Ezinbestekoa da eskubideen aldeko borrokan, mugimenduaren antolakuntzak eta interpelazioetatik, jendarte guztia inplikatzeko izan duen eraginaz mintzatzea. Zentzu honetan, instituzio honi dagokion ardura hartetik aurkezten dugu adierazpen hau.

Bizitzari baldintza duin eta justuetan eustearen aldeko apustua egiteko unea da: horrek begirada feminista eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan. Genero-desberdintasun estrukturalak ukaezinak dira: emakumeek beren gain hartzen jarraitzen dute zaintzen karga gehiena, ordaindua eta ordaindu gabea; eta azken honek gainera, prekariedade nabarmena du. Egoera honi egoki erantzungo dioten erantzun integralak premiazkoak dira, esparru eta maila guztietan, globaletik tokikoraino eta alderantziz. Euskal Herrian, gure eskumen-esparru mugatuan, argi daukagu gure lurraldeetan gure bizitzaren burujabe ez garen bitartean ezin izango ditugula beharrezko aldaketa guztiak eskuratu: hala ere, badaude aukerak bide hori marrazten joateko, sisteman pitzadurak irekitzeko, eta, hain zuzen ere, tokikoa da eremu egokiena.

Horretarako, erakundeak koordinatu behar dira, eta bideak ireki herritarrek erabaki publikoetan benetan eta eraginkortasunez parte har dezaten, batez ere emakume-talde anitzek eta mugimendu feministak. Behar bezala aurre egin behar diogu daukagun erantzukizun publiko handiari, eta hori premisa feministetatik egin behar da, artikulazioa eta parte-hartzea bultzatuz, plan eta programa eraldatzaileak eginez, larrialdiei arreta emanaz eta behar diren baliabide guztiak ahalbidetuz.

Egoera honen kontziente izan behar dugu eta horri erantzungo dioten politika publikoek emakumeek ahaldu eta boteretzera ere eramane beharko lukete. Horretarako ezinbestekoa da Gobernantza Feminista aurrera eramatea. Gobernantza Feminista historikoki berdintasun politiketan kokatua izan da, Berdintasun Planen zutoinetako bat bezala eta honi *Gobernu Ona* esan zaio. Egiteko moduei, egiten denari baina gehiago begiratzean datza. Demokratizazio prozesu bat da oro har, lehentasunak definitzeko beste begirada bat; jarduteko eta lan egiteko prozeduretan aldaketa. Gobernantza feministari buruz ari garenean lidergo transformatzaile bati buruz ari gara eta beharrezkoa da ikuspegi feminista txertatzea aurrera eramane nahi dugun prozesu subiranistan.

Berdintasun Politikek, azken urteetan, oinarrizko sistema bat sortu dute, baliabide eta planez josia. Ezinbestekoak izan dira, hainbat bide zabaltzeko, eta hauen garapenean oraindik bidea daukagu egiteko. Nabarmentzekoa da, indar ultrakontserbadoreek hauen kontra abiatu duten gurutzada, eta argi dugu horien defentsan eta sustapenean egongo garela instituzio bezala. Baina handik haragoko politikak behar ditugula esan nahi dugu gaurkoan, zeharlerrotasun erradikal bat martxan jarri behar dugu. Hau da, estruktura estankoak apurtu behar ditugu eta sail ezberdinen artean proiektu konpartituak eraiki eta kudeatu behar ditugu. Honi, Politika Feminista deritzogu, “emakumeen gaiak” izkinatik atera eta unibertsal bilakatzera jo nahi dugu. Zaintzaz, ekonomiaz, hirigintzaz, hezkuntzaz, segurtasunaz edota Indarkeria Matxistaz, guztiaz, ikuspegi feministatik aritu nahi dugu. Beharizan nabarmen eta erronka handi hauen aurrean, gure herriak, dinamika eraldatzaile eta partekatu bat abiatu behar du, erakundeetatik ahalegin eta konpromiso hori aitortuz, proposamenak eta aldarrikapenak jasoz, eta topaketa- eta elkarrizketaguneak indartuz.

Horregatik guztiagatik, Amasa-Villabonako Udalak honako hau erabaki du:

- Berdintasunean Ados! Mahai irekiaren jardunarekin jarraitzea, gobernantza eredu parte hartzaile eta demokratiko bat garatzeko bokazioarekin.
- Amasa-Villabonako zaintza sistemaren diagnostikoa amaitzen denean, diagnostiko horrek jasoko dituen ondorio nagusiak herritarrekin partekatzeko baliabideak martxan jartzea.
- Berdintasunean Ados! mahaitik, Mugimendu Feministarekin batera, **Zaintzen aldeko Herri Akordio bat** lortzeko lan egitea. Akordio horretan herriko zaintza sistema zabaldu eta hobetzeko ditugun erronka nagusiak definituko dira eta horiei erantzuteko neurri eta egitasmo zehatzak jarriko dira mahai gainean.
- Mugimendu Feministak bidezko eta berdintasunezko gizartea lortzeko gaur arte egindako lan guztia eta egiten jarraitzen duen ezinbesteko ekarpena aitortzea.
- Andragora Tolosaldeko Emakumeen Etxeari behar adina baliabide bermatzen jarraitzea.
- Martxoaren 8aren bueltan Mugimendu Feministak herrian eta Aiztondo bailaran antolatu dituen ekimen eta dinamikekin bat egitea, babestea eta herritarrei parte hartzeko deia egitea.

Amasa-Villabonan, 2025eko otsailaren 19an.